

↻ Hizpide ↻

Haur liburutegiak eta irakurketa: eskola eta kalearen artean

ASUN AGIRIANO



Inork ez du ukatzen liburuek paper garrantzitsua dutela haurren heziketan, haurra lehen pausoak ematen, lehen hitzak esaten eta lehen irudiak ikusten hasten den unetik beretik.

Irakurleak sortzea lan delikatua da. Eta liburutegiok ez dugu formula magikorik horretarako, baina, hasteko, badaude zaindu beharreko urratsak.

Umeez zer liburu irakurriko duten aukeratzeko orduan (eurek oso gutxitan erabakitzen baitute zer irakurri), hiru bitartekari mota daude: gurasoak, eskola eta bibliotekak. Liburuzainok testu bariatuak eta originalak eman beharko genituzke, liburuaren gaineko iritzirik agertu barik. Baina kontuan izanda, liburu aniztasun horrekin umearen alderdi kritikoa landu edo sortu beharko dugula.



Helburu horiek lortzeko, zeregin nagusi hauek betetzen ditugu: liburuak egoki aukeratzea eta irakurleak irakurtzera animatzea.

Liburuak egoki aukeratzea

Aukeraketa tresna garrantzitsua da txikienak irakurketan murgiltzeko, irakurtzen hasi direnen ohiturak finkatzeko eta nerabeak irakurle helduak izatera iristeko.

Liburuzainok hainbat tresna ditugu aukera egokiak egiteko irakurketa gidak, esate baterako.

Gero eta argitaletxe gehiago dago eta gero eta produkzio handiagoa. Neurri batean, hazkunde hori gertatu da biztanleen maila ekonomikoa eta kulturala igo egin direlako. Eskaintza hainbesteraino igo da, ezen eskaera baino handiagoa izatera heldu baita. Baina kantitatea eta kalitatea, sarri, lehian datoz. Izan ere, azkenaldian,

denak balio duela eta «konpondu zaitetz ahal duzun moduan!» ematen du.

Liburuaren industriari ondo etorriko litzaioke kalitate literarioa bereziki kontuan izatea eta ez, adibidez, idazlearen izen ospetsua.

Hori horrela, beharrezkoa da argitaratu berri diren liburuen artean ondo aukeratu eta eskaintza erakargarria egitea.

Umeei eskaintzen badiegu irakurtzeko material aberatsa eta ondo aukeratutakoa irakurketa bera atseginagoa eta aberatsagoa izango da.

Umeentzako liburuak aukeratzean, alderdi askori erreparatuko diogu. Gure umeak zaintzen hainbeste ahalegin egiten dugun moduan, liburuen aukeraketan ere alderdi guztiak zaindu beharko genituzke, ez testuak eta istorioak bakarrik (zenbat ipuin ilargi, eguzki eta hartzekin?), baita argitalpenaren gainerako ezaugarriak ere: azala,

ilustrazioa, formatua, tipografia, maketazioa, etab.

Zelan aukeratu hainbeste libururen artean onak direnak? Erantzuna gaztelaniazko esaera bat moldatuz dator: «*sobre gustos no hay nada escrito*»; eta bai... idatzita egon badago. Gakoa iritziak irakurtzean datza, hau da, informatu eta irakurri behar dugu aurretik. Horretarako, jarraipen bat egin beharra dago, urretik lastoa kendu; gero, irizpide propioarekin aukeratzeko.

Asko irakurri behar da, prestatu egin behar dugu geure burua; baina badaude, hala ere, bitarteko baliagarriak, lana azkarrago egin ahal izateko eta norbera baino jantziago daudenek prestatuta.

Aldizkarien artean, esaterako, hauek ditugu: *CLIJ – Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil* hilebetekaria eta Educación y Bibliotecas bihilabetekaria. Interneten, berriz, SOL izeneko webgunea dugu (www.sol-e.com).

Euskaraz, Behinola aldizkaria dugu, funtsezkoa eta bakarrenetarikoa.

Eta hori bai! Ahotik belarrietara dabiltzan aholkuei adi egotea.

Irakurtzera animatzea

Umeak liburuarekiko duen jokabidea heldu batek izan dezakeenaren oso antzekoa da. Ez irakurtzeko dituen arrazoiak ere helduenak bezalakoxeak dira: nekea, denbora falta, beste interes batzuk nahiago izatea, etab.

Irakurzaleak egiteko modua da bakoitzak norberaren gustukoa irakurtzea. Liburua plazer-tresna moduan, libre aukeratutakoa, entretenitzeko modu bezala kontsideratzen ikasi behar da. Bibliotekan liburuak eskaini ahala, gazteei errepikatzen diedan esaldia: «eta hasi eta ez bazaitu erakartzen, edo aurrera jarraitzeko gogorik ez baduzu, ekarri eta beste liburu bat bilatuko dugu». Azorinek zioena: «Zer da garrantzitsuena? Zer ez den irakurri behar jakitea».

Irakurzaletasuna bultzatzen ez gabiltza

liburuzainok bakarrik, gurekin behar ditugu gurasoak eta eskola ere.

Familiaren papera gutxietsita dago, eta ahalmen handiko indarra da. Baina galderak dira: Irakurtzen al dute gurasoek? Haurrak ikusten al ditu bere gurasoak irakurtzen? Irakurtzen den familietan, umeek ere erraz irakurriko dute, etxeko giroak haurren motibazioa areagotuko du.

Eskolak funtsezko pizgarri funtzioa du. Literatura eskoletan onartu zenean (XX. mendean), sekulako aurrerapausoa izan zen; baina, gaur egun, atzera egiten ari gara, literatura ez baita eskoletan behar bezala zaintzen, helburu pedagogikoek lehentasuna hartu dute-eta. Eta nago, liburua berez ona bada, helburu pedagogikoa betetzen dela.

Eskolak irakurtzeko gustua kutsatu behar du. Eskolari zuzendutako galderak dira: Irakurtzen al dute irakasleek? Irakasleek jarraitzen dute urtero argitaratzen den produkzioa? Eskolek zer nolako liburutegiak dauzkate? Irakasle gehienek aldetik, eskola liburutegiak erabiltzeko interes falta handia dago. Iaz, GSR Fundazioak gai honi buruz kaleratu zuen ikerketa batetik hartutako datua da hau: Espainiako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen % 40k ez du inoiz eskola liburutegia bisitatu.

Galdera hauei erantzuten hasita, kezka sortzen da; baina, gehiago oraindik ikusita hezkuntza politikak ez diola kezka horiei konponbiderik jartzen. Eta benetan eraginkorrak diren neurriek hortik etorri behar dute. Mementoz, Hezkuntzan ez dago eskola liburutegiak arautu eta hornitzeko inongo aurrekonturik, azpiegiturak bisitatzek min ematen du. Frantziako adibidea hartzea nahikoa da konturatzeko gai honetan zer atzeratuta gabiltzan.

Proposamenak

Esan beharra dago irtenbide orokorrik ez dagoela, irakurle guztientzat balio duen formularik ez da. Gure liburutegietara hurbiltzen



diren herritarrak ezagutu behar ditugu, horrela izango baita posible euren beharretara eta gogora egokitutako eskaintza egin ahal izatea.

Antolatutako ekintzek helburu izan behar dute, benetako helburu, irakurzaletasuna sustatzea eta, egia esan dezadan, ez herriko kultur eskaintza osatzea. Errezeloa dut, batzuetan, irakurzaletasunaren izenean okerreko bideetatik jo dugula, mementoko poza eta efektu azkarreko ekintzetan erori eta batzuetan liburuak eskaini ordez, pailazoak eta txotxongiloak eman dizkiegula haurrei.

Kezka hori urtero izaten ditugun animazioekintzen programazioan antzeman daiteke. Zeinek dute irakurketa bultzatzeko helburua? Nire ustez, irakurleek ekintza serioagoak merezi dituzte eta, horretarako, apustu egin beharra dago eta adi egon urtero kaleratzen diren ekitaldi eta proposamen berri eta interesgarriei (horretan, egunkariak informazio iturri dira).

Gure lana da askotariko eskaintza egitea eta eskaintza hori urtetik urtera berritzen joatea.

Azken urteotako ekintza berritzailea da, adibidez, irakurle klubak sortzea. Irakurtzea bakarkako lana da, baina, noizean behin, esperientzia hori partekatu nahi izaten dugu. Irakurketa porlana bezalakoa da, sentimenduak eta emozioak unibertsal bihurtzen ditu.

Irakurketa partekatuek afektiboki lotzen gaituzte. Erreparatzeko moduko adibidea dugu Arrasateko liburutegian urteetan sendotu diren helduen arteko «Literatura solasaldiak». Motibazioa lantzen da eta literatura ezagutzeko bidea ematen du. Irakurketak eman dezakeen plazera solasaldiko kideengana zabaltzen da.

Ekintza minoritarioa da eta, gaur egun antolatuta dagoen moduan, belaunaldi gazteak ez ditu erakartzen. Hala ere, gazteekin saiatzeko ahalegina egin beharra dagoela uste dut eta horretan bidelagun izan ditzakegu eskolak.



Liburuzainen motibazioa

Ekintza eta proposamen hauek gauzatzeko, irakurzaletasuna kutsatzeko, aurretik norberak egon behar du sinetsita, zailtasunen aurrean (eta egon badaude) sendo agertzea ezinbestekoa baita. Zelan baina? Motibazioa kargatuz.

Nola kargatzen den? Beste guraso, irakasle eta liburuzain batzuekin komunikatuta eta, bereziki, haur-liburutegietako bibliotekariekin. Liburuzainok arriskua dugu lana bakar antzean egiteko: liburuak erosi inorekin kontrasterik egin gabe, ordenagailuaren aurrean katalogatu, liburuok apaletan jarri, ordena mantendu... Hori da, agian, gizarteak duen irudia. Oraindik ere herritar askok pentsatzen dute gure lana liburuak irakurtzea dela, «liburutegi-saguak» garel.

Halaber, komunikazioa landu behar da beste eragile batzuekin, udal hezkuntza eta kultura arduradunekin eta zinegotziekin, batez ere. Gure egitasmoak horiei guztiei ezagutarazi behar diegu. Horretan, laguntza izan dezakegu



komunikabideen aldetik, baina, betiere, benetako interesa eta ardura badago, eta ez bakarrik espazioa edo denbora bete beharra.

Azkenik, gor dauden erakundeen belarriak ere ireki nahi genituzke, behingoz irakurketa eta haur eta gazte literaturari aldarte onez begiratzen has daitezten. Ea irakurketaren gaia politikoren baten agendan sartzen den!

Amaiera

Haur liburutegiok oraindik makina bat galdera dugu argitzeko, baina, dagoeneko, gizarte honetan onartuta dago liburua kulturaren sinboloa dela eta, era berean, liburua maitatzen irakastea ez dela soilik bibliotekarion lana.

Asko aurreratu da eta, gaur egun, ez da inoren buruan sartzen haur eta gazteentzat kokapen berezirik ez duen liburutegirik. Are gehiago, onartzen da udal liburutegi baten espazioaren % 20 eta % 37 bitarteko gunek, haurrei zerbitzu emateko izan behar duela. Beraz, zentzu horretan,

autonomia lortzen ari gara, bilduma gaurkotuak ditugu eta euskarri berriak (DVD, musika, CD-Rom...) eskaintzen ditugu.

Informazio eta emozioen iturri gara, ez ditzagun bibliotekak ikasteko txoko bihurtu. Batzuetan, neguan batez ere, energia xahutu egiten dugu biblioteka hartzaindegi bilakatzen delako. Baina saiatu egiten gara egoera horri erantzuten literatura deskubritzeko estrategiak erabiliz, gure ahalegina parte-hartzaile eta egoera berriei zuzenduz.

Pauso txikiak ematen ari gara, aldizkari hau lekuko. Ez dago bide zuzenik, zeharkakoak baizik, eta tantaz tanta egiten den lanarekin betetzen da edalontzia.

Begi-bistakoa bada ere, ez dezagun ahatz irakurzaletasuna bultzatzeko egin daitekeen gauzarik garrantzitsuena irakurtzea dela.

Munduan mundu asko daude, irakur itzazu! Irakurketa sustatzeko kanpaina

ARANTZA ARZAMENDI
(Kultura Ondareko zuzendaria)



1. Sarrera

Munduan mundu asko daude, irakur itzazu! goiburu edo eslogana behin eta berriro entzun zen euskal komunikabideetan 2006ko udaberrian, Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen irakurketa kanpainan. Esaldi hura entzuteak hainbat galdera sortzen zizkigun: Zergatik irakurri behar dugu? Eta zertarako? Edo zer irakurriko dugu? Non irakur dezakegu? Norekin? Nola? Noiz?

Galdera horien erantzuna aurkitzeko liburuaren eta irakurketaren inguruan lanean ari diren profesionalengana jotzea da egokiena. Gaur egun liburutegietan, liburu dendetan eta ikastetxeetan irakurketarako aukera onak ditugu, baina hala ere, esan beharra dago gure gizartean, irakurketaren mundua ez dagoela zabaldua. Hori da hain zuzen, datu estatistikoek adierazten digutena, irakurtzeko ohitura duten euskaldunen portzentaia % 52,5eko da, noizean behin edo tarteka besterik irakurtzen dutenak % 25,9 dira eta inoiz irakurtzen ez dutenak, berriz, % 21,6. Beraz, ia bost biztanletik

1. Ikus: Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarea zenbakitan, 2005 (http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/bibliotecas_estadisticas/eu_6068/eu_estadistikak.html)
Katalogoaren kontsulta: (http://www.liburutegiak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetclop/O9481/ID05c8e18b?ACC=101)

batek ez ditu ezagutzen edo, ezagutzen baditu, ez ditu erabiltzen liburutegiek eskaintzen dituzten doako zerbitzuak.

Aipatutako datuak adierazten digute irakurketa bultzatzeko ekimenak antolatzea guztiz beharrezkoa dela eta bide batez beharrezkotzat jotzen da liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuak gizarte osoari ezagutzera ematea. Labur esanda liburutegietara sarrera erraztea, bertan eroso sentiaraztea, eta zerbitzuarekiko hurbiltasuna lortzea.

Esan beharra dago, aspaldian ari direla bai Eusko Jaurlaritza, bai Foru Aldundiak eta baita Udalak ere, liburutegi zerbitzuak eta irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak lantzen, idazle, ilustratzaile, argitaletxe, liburu saltzaile eta beste hainbat eragilerekin batera.

Besteak beste, aipagarria da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak antolatu duen Irakurketa Publikoaren Sarea.¹ Gaur egun, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko (ELSN) 219 liburutegi dira aipatutako *on line* sarea osatzen dutenak. Sareak abantaila handiak eskaintzen ditu, azpimarragarriak dira, liburutegiek osatzen duten datu base orokorra Internet bidez kontsultatzea, gaur egun 500.000 material daude kontsultagai, eta irakurle bazkide txartela sareko liburutegi guztietan baliagarri izatea. Bestalde, liburuzainei dagokienez, katalogoaren abantaila handiena bakarra izatea eta etengabe eguneratzea da baliabideak aurreztuz, bide batez, katalogazio bikoiztuak saihestu nahi dira.

Etorkizunari begira mahai gainean dugun erronka sareen arteko sarea antolatzea da, Irakurketa Publikoaren Saretik at dauden liburutegi



2. Ikus 2006ko aginduaren testua; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), 83. zk., 2006ko maiatzak 4.

3. Ikus 2006ko aginduaren testua, EHAA, 88. zk., 2006ko maiatzak 11.

4. Liburutegi publikoen zerbitzuaren garapenerako IFLA/ UNESCOren jarraibideak / IFLAren Liburutegi Publikoen Lantaldeak Philip Gill-en zuzendaritzapean prestatutako lana; [itzulpena, Rosetta T.Z.]. –Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004.

5. Ikus: (http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/fomento_lectura/eu_15510/objetivo.html)

sareekin sare zabalago bat egituratzea, bilaketak egin ahal izateko eta katalogazioaren etekina handiagoa izan dadin.

Horretaz gain, Kultura Sailak, bi dirulaguntza programa ditu udal liburutegiei zuzenduak, bata haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko,² eta bestea, liburu multzoak berritu edo/eta handitzeko.³

Irakurketa bultzatzeko ekintzek arrakasta handia izan dute, bereziki, udal liburuzainen inplikazioari esker. Antolatzen diren ekitaldiak, bereziki, haur eta gurasoei zuzenduak izaten dira adibidez, ipuin kontaketak, lehiaketak, bisitaldi didaktikoak, udako liburutegiak. Bestalde, ohikoak dira helduei zuzendutako liburu aurkezpenak, poesia errezitaldiak, literatur solasaldiak, erakusketak, eta ikastaroak.

2. Irakurketa Sustatzeko kanpaina

Kulturaren Euskal Planaren ildotik, 2006an zehar Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Irakurketa Sustatzeko kanpaina edo proiektu bat landu zuen, gutxitan edo inoiz irakurtzen ez dutenak liburutegietara gonbidatuz, bertako zerbitzuak ezagutzeko aukera izan dezaten, ez bakarrik liburuak, baita bestelako kultur produktuak ere, interneterako sarbidea, egunkariak, aldizkariak, musika, dokumentalak, eta abar. Izan ere, liburutegi publikoaren ezaugarri nagusia da ezagutzarako eta informaziorako sarbidea eskaintzea, baliabide eta zerbitzu mota ugari erabiliz horretarako.⁴

Munduan mundu asko daude, irakur itzazu!, izan zen apirilean euskal komunikabideetan zabaldu zen kanpainaren goiburu edo eslogana eta proiektuaren abiapuntua.⁵





Kanpainarekin batera, logo bat sortu zen hainbat aplikaziotara egokitzeko aukerarekin (1. irudia): kartelak, euskarriak, iragarkiak, tatuaje itsasgarriak, eta abar. Logoaren helburua antolatuko ziren ekintzak babestu eta koherentzia ematea izan da, itzal babesgarri moduko funtzioa betetzea. Noski, ekintza horiek liburutegietako arduradun edo liburuzainekin batera antolatu ziren, liburutegiak izan baitira proiektu honetako egiazko protagonistak eta bi multzotan banatu dira, biak ere osagarriak: liburutegia kalera eramatea eta kalea liburutegira erakartzea.

Liburutegiak kalera eramatearen helburua irakurleak lortzea da, beste modu batean esanda, kulturarekin zerikusirik ez duten espazioetan irakurketarako gonbitea egitea. *Kalean irakurri* izeneko ekintza egokia da, azokan, osasun zentroan, tabernan, ile apaindegian edota parkean antolatzeko. Lekuan lekuko liburuzainek erabaki dute zein espazio den interesgarriena liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak azaldu eta bertara hurbiltzen denaren intereseko irakurketak proposatzeko. Besteak beste, Andoain, Erandio, Iurreta, Markina-

Xemein, Elgoibar, Eskoriatza, Getxo eta Iruña Okako liburutegiek landu dute aipatutako ekintza. Andoain, Erandio, Eskoriatza eta Markina-Xemeingo liburuzainek azoka eguna aukeratu zuten herritarrei Liburutegiaren berri emateko. Azokan bertan jarritako karpa handi batean, bazkide txartela lortzeko betebeharrak eta mailegu zerbitzuaren funtzionamendua azaldu ziren, inoiz liburutegira hurbildu ez direnak bertan eskaintzen diren zerbitzuak ezagutzeko aukera izan dezaten. Iurretak, berriz, liburutegiaren informazio-guneak prestatu zituen jende ugari ibiltzen den herriko guneetan, besteak beste, zaharren egoitzan, osasun zentroan, posta bulegoan, farmazian, INEMen bulegoetan. Iruña Oka eta Getxoko liburuzainek taberna, kafetegiak eta osasun zentroa aukeratu zituzten liburuak bertara eramateko eta liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak bezeroei azaltzeko. Getxoko liburutegia mintzalekuetara ere joan zen, atzerritarrengana hurbiltzeko asmoarekin.

Espaloietan irakurri: Bigarren proposamen honek talde sortzaile baten lana eskatzen du, hain zuzen, egin beharrekoa herriko edo auzoko liburutegirako bidea marraztea baita. Ikastetxeen lankidetzara ere oso baliagarria izan daiteke, edota aisialdiko taldeena, kultur taldeena eta abar. Guraso, haur eta gazteen inplikazioa lortzea oso aberasgarria izan da, azken finean, marrazki eta irudien bitartez Liburutegirako kolorezko bidea markatuko da, herritar guztientzat ikusgarria. Eredu hau praktikan jarri zen, besteak beste, Arrasateko Santa Marina auzoko liburutegian, bertako ikastetxetik liburutegirako bidea ondo adieraziz, ekitaldiak festa giroa ere izan zuen, eta bidea marraztu ondoren haurrentzako jolasak antolatu ziren.

Dendetan irakurri: hirugarren ekintza honetan Liburutegiak bere materialak eskaintzen dizkie herriko dendariei, kasuan kasuko jarduerarekin lotura duten liburuak erakutsi ahal izateko. Adibide gisa, Amurrio eta Bergara ditugu, bertako liburuzainek herriko dendariekin elkarlanean hainbat dendatan, bertan saltzen diren produktuekin lotura duten liburuen erakusketak prestatu zituzten, bezeroek liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutu ahal ditzaten, eta nahi izanez gero maileguan etxera eramateko aukera ere eskainiz. Amurrioko kasuan gainera, gaztetxoengana heldu nahian, neska-mutikoentzat dendetako erakusleihen argazki eta margo lehiaketa antolatu ziren.

Bigarren multzoan, kalea liburutegira erakartzeko, beste hiru ekintza diseinatu dira:

Maitasunez irakurri: gazteei zuzendutako ekintza hau, liburuak oparitzeko ideian oinarritzen da. Oparia liburutegian entregatzen da, horretarako apropos jarrita dauden kaxetan. Ezinbestekoa da oparia eskaintzen zaion pertsonaren datuak agerian jartzea, liburutegiko





irakurleek eta gainontzekoek ere opariaren berri izan dezaten. Liburuzaina arduratuko da opariaren hartzaileari liburutegian gertatutakoa jakinarazten.

Harrotasunez irakurri: haur eta gaztetxoei zuzendutako jarduera honetan, logoaren irudia duten tatuaje itsasgarriak ematen zaizkie liburu bat maileguan hartu eta irakurri dutela esanaz liburutegira itzultzen dutenei. Era honetan tatuajeak liburuak irakurtzeak uzten duen arrastoa adierazten du, eta irakurleak harrotasunez erakusten die bere lagunei eta senitartekoei. Ekintza honek arrakasta handia izan du, eta horren lekuko dugu Tolosako Haur Liburutegia.

Ozen irakurri: Liburuzainak herriko jendea liburuak gomendatzera gonbidatzen du. Ez da iritzi kritikorik edo goi mailakorik eskatzen, gomendio edo aholku bat ematea nahiko da. Lehendik irakurleak direnak hurbilduko dira gehien bat, baina gonbidatuaren inguruan liburutegiaren berri ez dutenak ere etorriko dira, eta bide batez, liburutegiari bizitasuna emango dion jarduera da.

Ekintzen programazioari dagokionez, 2006. urtean zehar hiru alditan antolatzea ikusi da egokiena,⁶ irakurketaren prozesuak etenik gabea, jarraitua izan behar duela adierazi nahian. Hiru aldi horiek definitzeko aukeratu diren hiru datek badute bere esanahia kultura eta gizarte egutegian. Kanpainaren hasiera, apirilaren bukaeran izan zen, hain zuzen, apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzen baita, eta egun batzuk lehenago komunikabideetako kanpaina jarri zen martxan, logoa eta goiburua jakinarazteko. Bigarren aldia, ekainean burutu zen, San Joan egunaren inguruan, kontuan izanik egun horrek

6. Artikulu hau idazterakoan proiektuaren lehenengo eta bigarren aldia dira gauzatuak daudenak.

7. (http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/bibliotecas_prensa/)

El Diario Vasco (2006-07-19): Tolosa. «Leer deja marca», campaña de la biblioteca infantil.

Diario de Noticias de Álava (2006-07-19): Amurrio: «La biblioteca sale a la calle».

Tolosaldeko Hitza (2006-07-18): Tolosa: Irakurketa sustatzeko kanpaina Haur Liburutegian. «Harrotasunez irakurri» lemapean, umei tatuajeak banatuko dizkiete maileguekin.

El Correo (2006-6-28): Las bibliotecas de Getxo prestarán libros en cafeterías, bares y locutorios.

Uribe Kosta Digitala (2006-06-28): Las bibliotecas municipales de Getxo acercan los libros a la ciudadanía.

El Diario Vasco (2006-06-23): Eskoriatza: Biblioteca a la calle.

Diario de Noticias de Álava (2006-06-15): Alegría Dulantzi: La presentadora de Betizu anima hoy a los niños de Alegría a leer.

Goiena.net (14-06-2006): Bergara. Hainbat komertzioak «dendetan irakurri» kanpaina hartuko dute parte.

El Diario Vasco (10.06.2006): Bergara. Doce comercios locales combinan su actividad con las funciones de la biblioteca.

Diario de Noticias de Álava (18-05-2006): La biblioteca de Amurrio cierra mañana el plazo para el concurso de fotografía.

Diario de Noticias de Álava (28-04-2006): La biblioteca de Iruña de Oca lleva sus libros hasta los bares del municipio.

⇨ Hizpide ⇨


baduela esanahia bereizi bat gure egutegian, udararen hasiera da, eta ondorioz, denbora libre, dibertsioa, eskolako eta laneko oporraldiaren garaia. Azkenik, hirugarren aldia, Liburutegiaren Nazioarteko egunarekin lotuko da. Urriaren 21ean ospatzen den Nazioarteko data hau, gure artean ez da oso ezaguna, baina proiektu honen bitartez ezagutzera eman nahi da eta egun horren inguruan hainbat ekitaldi antolatzeke aukera eskaini.

Irakurketa Sustatzeko kanpaina honen defnizioan aipatu behar den beste elementu nagusi bat, komunikabideen inplikazioa da. Kanpainaren aurkezpen ekitaldian, komunikabideei eskatu egin zitzaie antolatutako ekintzen berri emateko konpromisoa, eta ekintza puntualak albiste bihurtzean gizarte osoan oihartzuna lortzea. Liburutegi Zerbitzuaren web orriak badu atal berezi bat, liburutegiekin lotura duten albisteak jasotzen dituena.⁷ Bertan azaltzen da prentsan argitaratu diren Irakurketa Sustatzeko kanpainaren berrien hautaketa bat.

Artikulu hau 2006ko udakoa da eta kanpainaren erdibidean gaude. Lehen bi faseek oihartzuna izan dute, eta orain hirugarren fasea prestatu behar da. Espero dezagun behin kanpaina amaitu ondoren antolaketan aurreikusten genituen helburuentzat lagungarri izatea.

Amaitu aurretik, aipatu nahi ditut kanpainaren antolaketan Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuarekin batera partaide izan diren eragileak: Tipula S.L., Estudio Lanzagorta, Patio Espacio de Comunicación, Mediasal, Lupe eta Joseba. Eskerrak eman nahi dizkiet bide batez, liburuzainei, liburutegietako arduradunei, kanpainan zehar parte hartu dutenei eta bertara hurbildu diren guztiei.

Gasteiz, 2006-08-03



El Diario Vasco (27-04-2006): Arrasate. La biblioteca de Santamaina organiza juegos infantiles para incentivar la lectura.

11 Barri (26-04-2006): Markina-Xemein: Kalera irten du Herri Bibliotekak.

El Diario Vasco (25-04-2006): Andoain. La biblioteca municipal sale a la calle e instalará hoy una carpa en Bastero.

El Diario Vasco (23-04-2006): Andoain. Biblioteca en la calle.

Erabili.com (21-04-2006): Irakurketa sustatzeko kanpaina.

Herri Irratia.com (21-04-2006): La biblioteca de Erandio participará el lunes en la captación de nuevos socios.

Hiru.com (21-04-2006): Hainbat ekintza antolatu dituzte Liburuaren Eguna ospatzeko.

EITB.com (21-04-2006): Varias bibliotecas sacarán los libros a la calle.

El Correo (21-04-2006): La biblioteca «tomará» las calle de Iurreta para incentivar la lectura.

El Diario Vasco (21-04-2006): La Biblioteca trasladará mañana y el lunes sus libros a la plaza de San Martín.

El Correo (21-04-2006): Amurrio inaugura la feria del libro y repartirá ejemplares en las tiendas.

El Diario Vasco (14-04-2006): Andoain. La biblioteca municipal saldrá a la calle para celebrar el Día del Libro.

El País (5-04-2006): Cultura lanza una campaña para fomentar la lectura desde las bibliotecas.

El Diario Vasco (5-04-2006): Las bibliotecas públicas buscan usuarios.

↻ Hizpide ↻

Haur liburutegiak

Askatasungune

CONCEPCIÓN CHAOS LLORET

(Liburuzaina. Donostia Kultura-ren Udal Liburutegien Sareko Haur Liburutegi Nagusia
Haur Liburuaren Dokumentaziogunea)

JON SUAREZEK itzulita



Edozein egun Haur Liburutegian

Liburutegiko sarreran neska-mutil talde bat dago zain. Barrura sartu dira, zaratatsu, eta sakabanatu egin dira aretoan. Erabaki ezinik geratu da neska bat, beste haurrei begiratu die eta ez daki nora joan. Hurbildu egin natzaio:

–Zerbaiten bila zabilta? Lagun zaitzaket?

Ahapeka hitz egin dugu biok eta azkenean jakin dut itsas txakurrei buruzko libururen baten bila dabilela. Irudiz betetako liburu bat aurkitu dugu. Bere liburuarekin pozik, eseri eta irakurtzen hasi da.

⇨ Hizpide ⇨



Atzerritar itxurako mutil bat hurbildu zait:

–Utziko didazu bolaluma bat?

–Hartu hau, eta ez ahaztu itzultzeaz.

Bitartean beste neska-mutil batzuk joan dira sartzen.

–Libre al dago Internet?

–Nik CD-ROM bat nahi dut.

–Ikus dezaket pelikula bat?

–Non daude Kika Supersorginaren liburuak?

Poliki-poliki guztiei egin diegu kasu eta, behin guztiak lasai eta gustura daudela, eskatutakoarekin gozatzeraz eseri dira.

Bi heldu sartu dira. Irakasleak dira eta liburutegiaren antolamenduari buruz galdetu dute. Ahapeka azaldu diet gaika daudela liburuak antolatuta, sistema hamartarra erabiliz, gure sareko beste edozein liburutegitan bezala. Izenburuak, argitaletxeak eta abar idazten utzi ditut.

Haur bat hurbildu da:

–190 orrialde dituen liburu bat nahi dut.

Irakasleak agindu omen die orrialde kopuru horretako liburu bat irakurtzeko. Gustukoen misteriozko liburuak dituela jakin dut, letra handidunak eta ez oso luzeak. Bere gustuko bat aurkitu dugu eta etxera eraman du maileguan.

Aita lagun dutela, bi neska gerturatu

dira. Neskak irakurtzen ari diren bitartean, liburutegiaren antolaketari buruzkoak galdetu dizkit aitak: mailegu-txartela nola lortu, zein material mota eraman daitekeen, ordenagailuak nola erabili...

Barre ozenak eta ahotsak entzun dira. Hurbildu egin naiz:

–Izan kontuan zarata enbarazu izan daitekeela beste haurrentzat eta irakurketan arreta gal dezaketela.

–Hain da dibertigarria liburu hau...

Iristen ari da ixteko ordua.

Katalogatu, sailkatu, materialak prestatu, erosi beharrekoak aukeratu,... badugu lana oraindik.

Egun bete-betea.

Gazteentzako liburutegi-zerbitzuaren beharra

Hurrei eskainitako kultur zerbitzu guztietan Haur Liburutegia da, dudarik gabe, haur kopuru zabalen eta ezberdinenari atek irekitzen dizkiena. Lehen urteetatik nerabazarora arte (helduen sailera joango diren arte) erantzuten die irakurle gazteei. Lan hezitzailea egiten du; izan ere, batetik, etorkizuneko irakurle helduak prestatzen laguntzen du eta, bestetik, gizarte-lan garrantzitsua egiten du.

Haurra liburutegi batera iristen denean,

⇨ Hizpide ⇨



batzuetan, eskolako lanen baterako behar duen kontsultaren bat egiteko izaten da. Beste batzuetan, liburu atsegingarriren bat irakurtzeko. Baina gehienetan ez daki liburutegia erabiltzen. Ez daki zer den katalogo bat eta nola erabili, ez daki entziklopediak eta liburu dokumentalak erabiltzen eta ez du inola ere ezagutzen liburutegiak eskain diezaiokeen zerbitzu mota.

Haur Liburutegiak bibliografia eta ikus-entzunezko material zabala bildu behar du, irakurle gaztearen premia kultural eta olgetarakoak beteko dituen, baita premia izan aurretik ere. Baina hau ez da nahikoa. Haur Liburutegiak haurren jakin-mina eta irudimena suspertu, iradoki eta bultzatu behar ditu eta, horretarako, hainbat estrategia erabiltzen ditu, batetik liburutegiko erabiltzaile badirenen irakurketa aberasteko, eta bestetik, irakurle izan daitezkeen bila irteteko,

hauen arreta lortuz eta liburutegiak eskaintzen dizkien aukerak erakutsiz.

Donostiako Haur Liburutegi Nagusiak, Kultur Udal Patronatuaren Liburutegi Sarearen barnean dagoenak, ez die hurrei bakarrik eskaintzen arreta, guraso, hezitzaile, ikerlari eta haur liburuaren mundua interesatzen zaion edonori ere eskaintzen die arreta berezia. Zentzu honetan, HAUR LIBURUAREN DOKUMENTAZIOGUNEAREN bitartez, zenbait alderdi eta ikuspuntutatik haur literatura eta liburuaren inguruari dagokion funts dokumentaletan espezializatutako zerbitzua eskaintzen du. Euskal haur literaturari buruzko informazioa jasotzen duen bilduma nabarmentzen da.

Haur Liburutegietarako jarraibideak

UNESCOren 1994ko Manifestuaren arabera, lehen haurtzaroan hartzen dira irakurketarako gustua eta liburutegiak eta hauen baliabideak erabiltzeko ohitura.

Haurrak liburutegian erabiliko du askatasunez aukeratzeko duen eskubidea eta bertan izango du garatu eta aberasten lagunduko dion bitartekari heldua.

UNESCOren barruan ari den Liburutegi Publikoentzako Sailak (IFLA) instalazio mota hauentzat gutxieneko jarraibideak ezartzen ditu, eta herrialde guztiei aholkatzen die betetzea.

Jarraibide horietan bildumen tamaina eta eraikinaren ezaugarriak aipatzen dira. Hainbat gune eta eskaini beharreko zerbitzuak ere zehazten dituzte.

Arreta berezia eskaintzen zaio lan honetarako bereziki prestatutako liburuazainen beharrari.

Interesgarria da halaber erabiltzaileen adinari eta bildumaren tamainari buruzko aholkua: «Hamalau urte arteko haur populazioa populazioaren % 25-30 bitartekoa dela kontuan hartuta, bilduma osoaren herena egin beharko dute dokumentuek. Liburutegiaren erabiltzaile

⇨ Hizpide ⇨

potentzial garrantzitsu hau ahalik eta gehien zaindu beharra dago».

Haurrentzako aldizkako argitarapenen beharra ere aipatzen dute Jarraibideek.

Oro har, Jarraibide hauek aztertuz, Haur Liburutegiek izan behar dituzten ezaugarri bereziak ikusten dira. Berezi nabarmentzen da espezializatutako pertsonalaren beharra, funts dokumental eta fikziozkoa ezagutuko duena eta haurraren kulturaren munduarekiko interesa piztuko duena.

Haur-liburuzaina

Izen honek gaizki-ulertua ekar dezake, izan ere, haur-liburuzainaz hitz egiten dugunean, Haur Liburutegietan espezializatutako liburuzainaz ari gara –bere zerbitzuak zein adineko erabiltzailerir zuzentzen zaizkion kontuan hartu gabe–.

Haur-liburuzainak gaitasun eta ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu, bere lankideek derrigorrean izan behar ez dituztenak.

Ezjakinak erraz pentsa dezake Haur Liburutegiak teknikoki gutxi prestatutako langileak behar dituela, baina guztiz alderantzizkoa da egia.

Haur-liburuzainak, beharrezko ezaguera teknikoez gain, haurraren mundu eta psikologiaren ezagutza izan behar du. Jakin behar du interpretatzen, adibidez, zertaz ari den haur bat «suaren asmatzaileari buruzko (izena, eguna eta urtea) liburu bat» eskatzen duenean. Haur-liburuzainak seriotasunez hartuko du galdera, adierazteko modua hobetzen lagunduko dio eta eskatu duen informazioa topatzen.

Jakina, haur-liburuzainak egunean egon behar du bibliografia, ikus-entzunezko eta euskarri informatikoei buruzko berriei dagokienean.





Hala hurrei zuzendutako argitaratze-merkatua nola ikus-entzunezkoena oso zabalak dira, eta haurrari askatasunez aukeratzen utziko dion beharrezko materiala hautatzeko erantzukizuna haur-liburuzainari dagokio.

Liburutegi Publikoaren eta Eskola Liburutegiaren arteko harremanak

Liburutegi Publikoak eta Eskola Liburutegiak eginkizun ezberdinak dituzte, eta aldi berean osatu egiten dira.

Hurrek, jakina, egin ditzakete eskolako lanak Liburutegi Publikoan baina ez da zeregin horri dagokion lekua. Funts dokumental gehienak apaletan alferrik daudela, apaletako liburu bakar bat ere kontsultatu ez eta noizean behin entziklopedia edo hiztegiren batera jotzen duten ikaslez betetako liburutegia ikustea tristea da.

Azkenaldian liburutegietara etortzen diren ikasleek nagusiki Interneten egin ohi dituzte kontsultak, eta testua inprimatzera mugatzen

dira, informazioa kontrastatzeko eta egindako lana aberasteko baliagarri izango liratekeen beste iturri batzuen erabilera alde batera utzita. Euskarri mota guztiez baliatzen eta erraztasunez erabiltzen ikasi beharko lukete ikasleek. Eskolak eta liburutegiak bete beharreko zeregin garrantzitsua dute hemen.

Eskola Liburutegiaren eta Liburutegi Publikoaren ezaugarriak ezberdintzen jakitea garrantzitsua da. Eskola Liburutegiaren xedea eskolaren hezkuntza-programa gauzatzen laguntzea da. Beraz, ikasle eta irakasleek beren lana garatzeko behar duten materiala –euskarria edozein dela ere– eskaini behar du Eskola Liburutegiak.

Eskola Liburutegiaren eginkizuna da ikasleak informazioaren erabileran trebatzea eta norberaren probetxurako informazio hori erabiltzen irakastea, euskarri ez bibliografikoak barne: DVDak, CD-ROMak, datu-baseak,... Ikasleek Eskolako Liburutegian ikasi behar dituzte liburutegien

⇨ Hizpide ⇨

antolaketa printzipioak eta katalogoen erabilera. Horrela, Liburutegi Publikora joaten direnean, trebetasunez moldatzen jakingo dute.

Liburutegi Publikoak dagoen auzo, herri edo hiriko haur guztiei erantzuten die. Haurren eta horien adin ezberdinen arabera aukeratzen dira liburutegiko funtsak, eta aniztasun eta kalitate irizpideei erantzuten die.

Liburutegi Publikoa askatasunez jokatzeko den lekua da nagusiki. Aukera zabal eta erakargarria dute haurrek eta bete beharreko baldintza bakarra gainerako erabiltzaileekiko errespetua da.

Liburutegi Publikoak eta Eskola Liburutegiak elkarren arteko komunikazio-bideak izan behar dituzte ikasle eta irakasleek beren lanak egiteko behar dituzten materialak eskaini ahal izateko.

Irakasleek Liburutegi Publikora ikasleekin egiten dituzten bisitaldi didaktikoek ez lukete ikustaldi huts izan behar, baizik eta Liburutegi

Publikoa eta Eskola Liburutegiaren arteko elkarlaneko lan zehaztu bati jarraipena emateko balio beharko lukete.

Gure haurrek kritika-ahalmena duten irakurleak bihurtzeko daitezkeen eta liburutegiak erabiltzeko ohi daitezkeen nahi baldin badugu, ezinbestekoa da Liburutegi Publikoaren eta Eskola- Liburutegiaren arteko lankidetzak.

Donostiako Haur Liburutegi Nagusiak, 2001 urtetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako Ordezkaritzarekin lankidetzan, jardura-plan bat du ezarrita eskola-liburutegi-mediatekadan ari diren irakasleen formazio eta aholkularitza teknikoaren duena xede. Donostiako Udaleko Hezkuntza Sailak ere lagundu egiten dio plan honi Eskola Liburutegiaren hornikuntzari zuzendutako aurrekontuko diru-hornidura emanez urtero.

Egitasmo honen barruan, Liburutegi Nagusiak



⇨ Hizpide ⇨

formazio-ikastaroak ematen ditu eta aholkularitza teknikoak eskaintzen du Eskola Liburutegiak bisitatuz, irakasleekin hilerok bilduz, guneak planifikatuz, eta abar.

Euskarri dokumentalak eta fikziozkoak

Bibliografiaren eta ikus-entzunezkoen aukeraketak Haur Liburutegian oso zaindua izan behar du.

Oinarrian horrela osatzen da:

–Liburu dokumentalak.

–Fikziozko liburuak.

–Aldizkari eta egunkariak.

–Ikus-entzunezko materiala (CDak, CD-ROMak, DVDak,...).

Liburu dokumentalek zehatzak eta eduki zientifikodunak izan behar dute, hizkuntza ulergarria eta argia –baina ez sinplista edo eskasa– dutenak. Aurkibide alfabetikoak edo

gaikakoak izan ditzatela komeni da. Behar duen datua halabeharrez edo orrialdez orrialde bilatuz ez duela aurkituko ikasi behar du haurrak.

Ilustrazioak garrantzi handikoak dira, horiek ere hizkuntza baitira. Zenbat eta gazteagoa haurra, orduan eta garrantzitsuagoa da ilustrazioa. Hala, 4 urteko haurrari ilustrazioak informazio guztia emango dio; 12koarentzat, aldiz, testua hobeto ulertzen lagunduko dion elementu bat izango da ilustrazioa.

Liburu dokumentalak bi eratara irakur daitezke: bat-batekoa bata, interes jakinik gabekoa, liburuaz gozatzerako garamatzana; eta zehatzagoa bestea, informazio mota jakin bat bilatzera zuzendua.

Liburutegira adin guztietako haurrak etortzen direla kontuan hartuta, liburu dokumentalek adin maila ezberdinak bete behar dituzte.



⇨ Hizpide ⇨

Eleberri edo ipuinak baino lehenago zahartzen dira liburu dokumentalak. Liburutegiak ez du mantendu behar apaletan zaharkituak geratu diren ezaguerei buruzko liburu dokumentalik. Liburu dokumental bat liburutegiko funts bizitik zein unetan irtengo den erabaki beharra dago.

Fikziozko liburuek era askotakoak izan behar dute; bildumak irakurketa-ulermen maila ezberdinak eta era askotako gaiak izan behar ditu. 0 eta 14 urte arteko haurrak jasotzen ditu liburutegiak, beraz, interes eta gustuak askotarikoak dira.

Haurren gustuen bilakaera ere kontuan hartzen da. Uneren batean berotasun handiz irakurri ziren liburuek, denborarekin, interes txikiena ere ez dute eragiten. Zaila den arren, batzuetan, beharrezkoa da liburu horiek apaletatik kentzea.

Haurrentzako aldizkari gutxi daude eta, ondorioz, helduentzako aldizkari egokiekin osatu beharra dago.

Liburutegiak informazio eta aisirako eskaintzen duen bide bakarra ez dira inprimatutako dokumentuak. Ikus-entzunezko dokumentuek dimentsio berri bat gehitzen diete inprimatutakoei eta orientazio paregabeak ematen dituzte, musika adibidez, edo sumendiak, giza gorputza, eta abar bezalako gaiak ikuskatzeko aukera. Haurraren hazkuntza prozesuan garrantzitsua baldin bada irakurtzea, begiratu eta entzuteak ere lagun dezakete prozesu horretan eta irakurketa oso gogoko ez duten haurrak erakartzeko baliagarri izan daitezke.



Animazioa

Jarduerak programatzeko orduan beti hartu behar da kontuan Haur Liburutegian animazioak liburua izan behar duela abiapuntu eta libururantz zuzendua behar duela izan.

Arau hau betetzen ez bada, liburutegiak antzoki edo jolastokiaren funtzioak ordezkatzeko lituzke besterik gabe, baina ez luke dagokion zeregin nagusia beteko.

Liburuaren motore dinamizatzaileak izatearen eta dituen materialak zabaltzearen erantzukizuna du liburutegiak.

Liburuzainak irudimena landu ahal izateko aukera-eremu oso zabala du aurrean. Batetik, liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman eta erabiltzaile izan daitezkeenak erakarri behar ditu eta, bestetik, haurrengan irakurketa-ohitura sendoa eragitera zuzendutako jarduerak antolatu behar ditu.

Erabiltzaile autonomoak trebatzera zuzendutako jarduerak ere programatu behar dira. Liburutegian erraztasunez ibili ahal izateko beste ezagupen izan behar dute haurrek eta nahi duten informazio edo dokumentua aurkitzeko gai izan. Honi dagokionean, Eskola Liburutegiak eta Liburutegi Publikoak lan garrantzitsua egin beharra dute.

Eta azkenik, beste erakunde batzuekiko elkarlanerantzko programak garatu behar ditu liburutegiak.

Haur Liburutegia: askatasun eta bizikidetzarako gune

Bizikidetzeta eta tolerantziarako elementu bezala Haur Liburutegiek duten eginkizun garrantzitsua azpimarratu beharra dago. Haur Liburutegian bizikide dira arraza, kultura eta hizkuntza ezberdinetako haurrak.

Haur askorentzat, beharbada, liburutegia askatasun eskubidea erabil dezakeeneko lehenengo erakundea izango da, eskola eta familia ez bezala, hauetan ordutegi eta diziplina jakinak bete behar baitituzte. Haurrek, liburutegian, nahi dituzten material eta zerbitzuak aukeratzeko, nahiago dituzten guneetan egokitzeko, gustuen arabera nahi dituzten jardueretan parte hartzeko eta ordutegi jakin bat bete behar ez izateko askatasuna dute. Bete beharreko muga bakarra beste erabiltzaileen askatasunarekiko errespetua da.

Egin beharrekoaz kontziente baldin bada liburutegiko profesionala, eta liburutegiko erabiltzaileei askatasun eta errespetuaren zentzua transmititzen baldin badaki, gizarte solidarioan zentzu konstruktibo eta aberasgarria eransteko gai diren hiritar heldu, aske eta erantzuleak sortzen lagunduko du.

